


[Elkarrizketak](#)

MARIAN BEITIALARRANGOITIA -EAE-ANVko zerrenda burua

Kronika - Erredakzioa 2007-05-20 02:00



Marian Beitialarrangoitia (Legazpi. 1968) da EAE-ANVko zerrenda burua udal hauteskundeetan. Hernaniko udalean Alderdi berria da EAE-ANV eta aspaldiko urteetan Hernanin bizi den legazpiarra ere hautagai berria da. Gobernatzeko helburuarekin aurkeztuko dira hauteskundeetara, Alkategaiak uste baitu zerrenda bozkatuena izango dela berena, 'ezker abertzalearen bueltan ibili den jende horren botoa eta harantzagoko hainbatena` jasoko dutelakoan baitago, 'gauzak beste modu batera egin nahi dituztenena`.

Zein helburu izango du EAE-ANVko datozen hauteskundeetan?

Gure abiapuntuko helburua da Euskal Herriaren baitan Hernani erreferente bat izatea, herri euskaldun modura, kultur sortzaile modura, gizarte solidarioa izango dena, garapen iraunkorraren alde egingo duena, oinarria herritarren bizi kalitatea izango duena eta horretarako zutabe herritarren parte hartzea izango duena. Parte hartze erreale baten alde egin nahi dugu, eta ikusi beharko dugu hori nola gauzatu, baina gure apustua da herria izan dadila herriaren etorkizuna erabakiko duena. Horretarako bi gauza oso garrantzitsu dira: bat, ondare publikoa, azken urte hauetan saltzeko bidea hartu duena, osatu eta hobetzea; eta bi, ondare horren jabego kolektiboa, alegia ez dadila interes elitista, partikular edo partidista batzuen mesedetan jestionatu, baizik eta herriak erabakitzen duen horren baitan.

Zuen alderdiko zerrenda batzuk legez kanpo utzi dituzte, eta gainerakoak legez kanpo uztearen inguruko ahotsak ere entzuten dira. Hernanin Ezker Abertzaleak legezko aukera bat izango du. Zer irakurketa egiten duzue?

Hernanin gauza asko ditugu jokoan eta Euskal Herri mailan ere bai. Batzuk bai eta besteak ez kontestu horretan, herri honi eta gehiengo eskatzen ari denari ezetz esaten ari zaizkio, alegia, herri honek bizi duen auziak konponbide bat behar duela eta konponbidea denon artean bilatu behar dugula. Gure aukera da horri baietz esatea, instituzio demokratiko batzuei, gizartearen erabakitzeko eskubideari, prozesuari, eta ezkerari.

Esaten dutenean: halakok eta halakok botoa ANVrentzat eskatu dute; zer beste aukera du ikuspegi ezkeriar eta abertzale batek herri honetan?

Noski ordezkatu nahi dugula ezker abertzalearen aldeko apustua egiten duen gizarte eremu hori, nork bestela? Beste aukerarik ba al dago? Zergatik batzuk bai zergatik batzuk ez joko horretan ez gara sartuko, hori gobernu espainiarrak eta hainbeste babesten duen EAJk jakingo dute, guk EAE-ANVren aldeko bozka eskatuko dugu Udalerako eta Batzar Nagusietarako.

Ezker Abertzaleko zerrendak izan dira bozkatuenak Hernanin Udal hauteskunde guztietan. Zuen helburua gobernatzea al da?

Bai, gure helburua gobernatzea da. Uste dugu ezker abertzalearen bueltan ibili den jende horren botoa erakarriko dugula eta espero dugu harantzagoko hainbat jenderen botoa ere baietz, gauzak beste modu batera egin nahi dituztenen botoa. Herri honek ez du behar betikoek aldaketak agintzea eta gauzak beti bezala egitea, behar du benetan gauzak beste era batera egitea. Gainera, ardatza izango denez herritarrok erabakitzea, hor kabida denok izango dugu eta gure ustez boto